[Eusk/Cast] Han pasado ya casi tres años desde el momento en el que me detuvieron...

KAIET PRIETO LÓPEZ :: 01/02/2018

Artículo de opinión de Kaiet Prieto, que será juzgado mañana jueves en la Audiencia Nacional como encausado en la Operación Araña III

[Euskara]

Jada ia 3 urte pasatu dira atxilotu ninduten momentutik. Ezin ahaztu etxetik atera eta hiru kaputxadun oihuka hasi zirela: "Guardia Civil, Guardia Civil, está usted detenido". Eta hiru urte geroago, hemen nauzue, Audientzia Nazionalera bidean.

Bitxia da horren oinarrizkoa den eremuan, adierazpen askatasunarenean hain zuzen ere, eskuina eta faxismoa erabateko zigorgabetasunarekin mugitzen ari diren bitartean, ezker iraultzailea erreprimituta eta kondenatuta izaten ari dela. Rufián edo Otegirentzako tiro bat eskatzeak Audientzia Nazionalean esertzen ez zaituen bitartean, Uribetxeberria agurtzeak urte terdiko kondena ekarri diezazuke (gure kide den Andekari gertatu bezala).

Gaur egun sare sozialek jokatzen duten papera aipatu behar da, tresna bat direla gogoratuz eta ez helburua. Izan ere, benetako borroka kalean dago. Horregatik guztiagatik, besarkada handi bat egunero kaleak astintzen dituzuen horiei. Zuek zarete gure eredu!

Ezin dugu inolako justiziarik espero txiolariak espetxeratu eta faxistak saritzen dituen Estatu batengatik. Eta are gutxiago, ordena publiko frankistaren oinordekoa den Auzitegi Nazionalarengandik.

Horregatik guztiagatik, Auzitegi Nazionalak igor dezakeen bidezko sententzia bakarra absoluzioa da. Ez niretzat soilik, baizik eta Armiarma Operazio desberdinetako auzipetu guztientzat.

Azkenik, ez nuke amaitu nahi gure kide den Alfredo Remirez aipatu gabe. Oinarrizko eskubidea den adierazpen askatasuna erabiltzearren gaur egun Basauriko espetxean zigorra betetzen ari dena.

Atzo haiek izan ziren, gaur ni naiz, bihar zu izan zaitezke…

_____

[Castellano]

Han pasado ya casi tres años desde el momento en el que me detuvieron. Como olvidar los gritos de tres encapuchados al salir de casa: "Guardia Civil, Guardia Civil, está usted detenido". Y hoy, tres años más tarde aquí me tenéis, de camino a la Audiencia Nacional.

Es curioso que mientras la derecha y el fascismo se mueven con total impunidad, la izquierda revolucionaria no deja de ser reprimida y condenada en un ámbito tan básico como la libertad de expresión. Mientras pedir un tiro para Rufián o Otegi no te sienta en la Audiencia, despedirse de Uribetxeberria te cuesta año y medio de condena (como le ha pasado al compañero Andeka).

En este momento tenemos que recordar el papel que juegan las redes sociales y recordar que son una herramienta y no un objetivo. La verdadera lucha está en la calle. Por todo ello, un abrazo enorme a los que día a día agitáis las calles. ¡Vosotros sois nuestro ejemplo!

No podemos esperar ningún tipo de justicia de un Estado que encarcela twitteros mientras premia a corruptos y fascistas. Y menos aún de la Audiencia Nacional, heredera del más casposo tribunal de orden público franquista.

Por todo ello, la única sentencia justa que puede emitir la Audiencia Nacional es la absolución. No sólo para mí, sino para todos los encausados en la Operación Araña.

Por último, no quisiera olvidarme de nuestro compañero Alfredo Remirez, que actualmente cumple condena en la cárcel de Basauri por el simple hecho de ejercer un derecho tan básico como es el de la libertad de expresión.

Ayer fueron ellos, hoy soy yo, mañana puedes ser tu…

---

https://eh.lahaine.org/eusk-cast-han-pasado-ya